

77 |

2
0
2
4

Kulturaren Euskal Behatokiaren Estatistika eta Azterketa Bilduma
Colección de Estadística y Estudios del Observatorio Vasco de la Cultura

FINANTZAKETA ETA GASTU PUBLIKOAK KULTURAN

EAEko 2022ko TXOSTENA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA




Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

Kulturaren Euskal Behatokiaren Estatistika eta Azterketa Bilduma
Colección de Estadística y Estudios del Observatorio Vasco de la Cultura

FINANTZAKETA ETA GASTU PUBLIKOA KULTURAN


EAEko 2022ko TXOSTENA



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi
Nagusiaren katalogoa aurki daiteke:

<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>



Argitaraldia: 2022ko azaroan

© Eusko Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Kultura eta
Hizkuntza Politika Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
C/ Donostia- San Sebastian 1, Vitoria-Gasteiz 01010

Koordinazio teknikoa: ICC-CONSULTORS CULTURALS, SL.
Landa-lana: SIADECO, S.COOP.

Itzultzailea: IZO

Diseinua eta maketazioa: Diagonal 360°
ISBN:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	9
METODOLOGIA	10
A.1. Fitxa teknikoa	11
A.2. Azterlanaren behaketa-eremua	12
KULTURA-GASTU LIKIDATUA	13
B.1. Kultura-gastu likidatuaren bilakaera	14
B.2. Kultura-gastuaren pisu erlatiboa	16
B.3. Kultura-gastuaren sailkapen ekonomikoa	19
B.4. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arrunten tipologia	21
B.5. Kultura-gastuaren sailkapena kultura-arloaren arabera	24
KULTURAN EGINDAKO GASTUA ADMINISTRAZIO-MAILEN ARABERA	27
C.1. Transferentzien fluxuak administrazio-mailen arabera	28
C.2. Kultura-gastua kultura-sektorearen eta administrazio-mailaren arabera	30
ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN MULTZOAK KULTURAN EGINDAKO GASTUA	37
D.1. Transferentzien fluxuak administrazio-mailen artean	39
D.2. Jatorrian kontsolidatutako kultura-gastua	40
D.3. Helmugan kontsolidatutako kultura-gastua	45
D.4. Emaidza nagusiak kultura-sektorearen arabera	50
Kultura-ekintza	50
Musika	51
Museoak	52
Liburutegiak	53
Antzerkia eta dantza	54
Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	55
Jaiak eta kultura herrikoia	56
Zinema eta ikus-entzunezkoak	57
Ondarea eta arkeologia	58
Artxiboak	59
Ikusizko arteak	60
Literatura eta argitalpena	61
Bertsolaritza	62

KULTURAREN ARLOKO ENPLEGUA

63

E.1. Kulturaren arloko enplegua

64

ERANSKINAK

F.1. Datuen estropolazioa

69

F.2. Aztertutako kontzeptuak

70

F.2.1. Kultura-gastuaren izaera ekonomikoa

70

F.2.2. Kultura-gastuaren helmuga: esparruen deskribapena

71

F.2.3. Izaera kultureko diru-sarrerak

72


F.2.4. Kulturaren arloko enplegua

72

F.3. Gastuaren kontsolidazioa

73

GRAFIKOEN
GAURKIBIDEA



1. grafikoa. Kultura-gastu likidatua, administrazio-mailen arabera (€) 2008-2022	13
2. grafikoa. Kultura-gastu likidatua, aurrekontu totalekiko, administrazio-mailen arabera (%) 2008-2022	15
3. grafikoa. Kultura-gastu likidatua, udalen guztizko aurrekontuei dagokienez, udalerriaren neurriaren arabera (%) 2008 - 2022	17
4. grafikoa. Kultura-gastu likidatua, gastuaren izaera ekonomikoaren eta administrazio-mailen arabera 2008-2022	19
5. grafikoa. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arrunta, zerbitzu motaren eta administraziomailaren arabera (%) 2022	21
6. grafikoa. Kultura-gastu likidatua, gastuaren izaera ekonomikoaren eta administrazio-mailen arabera (%) 2008-2022.	24
7. grafikoa. Kultura-gastua, administrazio-mailen arabera (€) 2010-2022	28
8. grafikoa. Kultura-gastua, kultura-esparruaren eta administrazio-mailen arabera (%) 2010-2022	29

9. grafikoa. Kultura-gastua, kultura-esparruaren eta udalerrriaren neurriaren arabera (%) 2010-2022	34
10. grafikoa. Jatorrian kontsolidatutako kultura-gastua, administrazio-mailaren arabera (€) 2010-2022	39
11. grafikoa. Jatorrian kontsolidatutako kultura-gastua, gastuaren izaera ekonomikoaren eta administrazio-mailen arabera (%) 2010-2022	40
12. grafikoa. Helmugan kontsolidatutako kultura-gastua, kultura-sektorearen arabera (%) 2010-2022	43
13. grafikoa. EAEko administrazio publikoek kulturaren egindako gastua, kulturaren esparruaren arabera (%). 2018-2022	44
14. grafikoa. Kultura-ekintzara bideratutako EAEko kultura-gastu kontsolidatua (%) 2010-2022	46
15. grafikoa. Kultura-ekintzara bideratutako biztanle bakoitzeko gastu kontsolidatua (€) 2010-2022	46
16. grafikoa. Musikara bideratutako EAEko kultura-gastu kontsolidatua (%) 2010-2022	47
17. grafikoa. Musikara bideratutako gastu kontsolidatua biztanle bakoitzeko (€) 2010-2022	47
18. grafikoa. Museoetara bideratutako EAEko kultura-gastu kontsolidatua (%) 2010-2022	48
19. grafikoa. Museoetara bideratutako biztanle bakoitzeko gastu kontsolidatua (€) 2010-2022	48
20. grafikoa. Liburutegietara bideratutako EAEko kultura-gastu kontsolidatua (%) 2010-2022	49
21. grafikoa. Liburutegietara bideratutako biztanle bakoitzeko gastu kontsolidatua (€) 2010-2022	49
22. grafikoa. Antzerkira eta dantzara bideratutako EAEko Kultura-gastu kontsolidatua (%) 2010-2022	50
23. grafikoa. Antzerkira eta dantzara bideratutako biztanle bakoitzeko gastu kontsolidatua (€) 2010-2022	50
24. grafikoa. Jaietara eta kultura herrikoira bideratutako EAEko kultura-gastu kontsolidatua (%) 2010-2022	51
25. grafikoa. Jaietara eta kultura herrikoira bideratutako biztanle bakoitzeko gastu kontsolidatua (€) 2010-2022	51
26. grafikoa. Zuzendaritzara eta zerbitzu orokorretara bideratutako EAEko Kultura-gastu kontsolidatua (%) 2010-2022	52
27. grafikoa. Zuzendaritzara eta zerbitzu orokorretara bideratutako biztanle bakoitzeko gastu kontsolidatua (€) 2010-2022	52
28. grafikoa. Zinemara eta ikus-entzunezkoetara bideratutako EAEko Kultura-gastu kontsolidatua (%). 2010-2022	53
29. grafikoa. Zinemara eta ikus-entzunezkoetara bideratutako biztanle bakoitzeko gastu kontsolidatua (€) 2010-2022	53
30. grafikoa. Ondare eta arkeologiara bideratutako EAEko Kultura-gastu kontsolidatua (%) 2010-2022	54

31. grafikoa.Ondare eta arkeologiara bideratutako biztanle bakoitzeko gastu kotsolidatua (€) 2010-2022	54
32. grafikoa.Agiritegietara bideratutako EAEko Kultura-gastu kotsolidatua (%) 2010-2022	55
33. grafikoa.Agiritegietara bideratutako biztanle bakoitzeko gastu kotsolidatua (€) 2010-2022	55
34. grafikoa.lkusizko arteetara bideratutako EAEko Kultura-gastu kotsolidatua (%) 2010-2022	56
35. grafikoa.lkusizko arteetara bideratutako biztanle bakoitzeko gastu kotsolidatua (€) 2010-2022	56
36. grafikoa.Literaturara eta argitalpenara bideratutako EAEko Kultura-gastu kotsolidatua (%). 2010-2022	57
37. grafikoa.Literaturara eta argitalpenara bideratutako biztanle bakoitzeko gastu kotsolidatua (€) 2010-2022	57
38. grafikoa.Bertsolaritzara bideratutako EAEko kultura-gastu kotsolidatua (%) 2010-2022	58
39. grafikoa.Bertsolaritzara bideratutako biztanle bakoitzeko gastu kotsolidatua (€) 2010-2022	58
40. grafikoa.Kultura-enplegu publikoa (urtean urteko lanpostuak) 2010-2022	61
41. grafikoa.Kultura-enplegu publiko propioa (I. kapitulukoa) entitate-motaren arabera (urtean urteko lanpostuak) 2008-2022	61
42. grafikoa.Kultura-enplegu publiko propioa (I. kapitulukoa) sexuaren arabera. 2022	61

TAULEN **AURKIBIDEA**

1. taula. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntaren kapituluaren bidez finantzatutako zerbitzu eta kultura-jarduera motak (II. kap.), entitate motaren eta urtearen arabera. 2018-2022	22
2. taula. Kultura-gastua, kultura-esparruen, entitate motaren (€ eta %) eta urtearen arabera. 2018-2022	25
3. taula. Kultura-gastua, kultura-esparruaren eta administrazio-mailen (€ eta %) eta urtearen arabera. 2018-2022	31
4. taula. Udalen kultura-gastua kultura-esparruen eta lurralde historikoaren (€ eta %) eta urtearen arabera. 2018-2022	32
5. taula. Transferentzien fluxuak administrazio-mailen artean eta bilakaera 2018-2022	37
6. taula. Administrazio-maila bakoitzaren garrantzi erlatiboa EAEko kultura-gastuan (€ eta %). 2018-2022	39

7. taula.	EAEko administrazio publikoek kulturaren egindako gastuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren eta administrazio-mailen arabera (euroak eta % bertikala). 2018-2022	42
8. taula.	EAEko administrazio publikoen kultura-gastuaren eta gastu kontsolidatuaren banaketa biztanleko kultura-sektorearen eta urtearen arabera. 2018-2022	45
9. taula.	EAEko Kultura-gastu kontsolidatuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren arabera: Kultura-ekintza (€ eta %) 2014-2022	46
10. taula.	EAEko Kultura-gastu kontsolidatuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren arabera: Musika (€ eta %) 2014-2022	47
11. taula.	EAEko Kultura-gastu kontsolidatuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren arabera: Museoak (€ eta %) 2014-2020	48
12. taula.	EAEko Kultura-gastu kontsolidatuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren arabera: Liburutegiak (€ eta %) 2014-2022	49
13. taula.	EAEko Kultura-gastu kontsolidatuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren arabera: Antzerkia eta dantza (€ eta %) 2014-2022	50
14. taula.	EAEko Kultura-gastu kontsolidatuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren arabera: Jaiak eta kultura herrikoia (€ eta %) 2014-2022	51
15. taula.	EAEko Kultura-gastu kontsolidatuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren arabera: Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak (€ eta %) 2014-2022	52
16. taula.	EAEko Kultura-gastu kontsolidatuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren arabera: Zinema eta ikus-entzunezkoak (€ eta %) 2014-2022	53
17. taula.	EAEko Kultura-gastu kontsolidatuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren arabera: Ondarea eta arkeologia (€ eta %) 2014-2022	54
18. taula.	EAEko Kultura-gastu kontsolidatuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren arabera: Agiritegiak (€ eta %) 2014-2022	55
19. taula.	EAEko Kultura-gastu kontsolidatuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren arabera: Ikusizko arteak (€ eta %) 2014-2022	56
20. taula.	EAEko Kultura-gastu kontsolidatuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren arabera: Literatura eta argitalpena (€ eta %) 2014-2022	57
21. taula.	EAEko Kultura-gastu kontsolidatuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren arabera: Bertsolaritza (€ eta %) 2014-2022	58
22. taula.	Kultura-enplegu publikoa, entitate motaren, lanbide-eginkizunaren, kontratuturaren eta urtearen arabera. 2014-2022	63

AURKEZPENA

Txosten honetan Euskal Autonomia Erkidegoko finantzaketa eta gastu publikoa kulturaren estatistikaren zortzigarren edizioaren emaitzak aurkezten dira, 2022. urteari dagozkion datuekin.


Azterlanaren xedea da EAEko Administrazio Publikoaren kulturako finantzaketaren eta gastu publikoaren ezaugarriak ezagutzea. Horretarako, sakon aztertu behar dira administrazioaren zein bere mendeko organismo autonomoen, sozietate publikoen eta fundazioen kultura-aurrekontuak. Analisiak bi bide hartzen ditu: alde batetik, kulturako baliabideen izaera ekonomikoa, eta, bestetik, helmuga.

2008an martxan jarri zen eta bi urtez behin egiten den azterlana da, eta 2022 ekitaldiko datuez gain, EAEn kulturara azken 14 urteotan bideratutako baliabide publikoen bilakaera aztertzeko aukera ematen digu.

Estatistikaren edizio hau kulturaren eragin nabarmena izan zuen COVID-19ak eragindako pandemiaren ondoren egiten den lehen edizioa da. Edizio honetan ikus dezakegu nolakoa izan den sektorearen susperraldia pandemia ondoren eta zer-nolako eragina izan duten aplikatutako politika publikoek.

Analisiaren ereduak zein azterlanaren informazioa erakusteko moduak estatistika beraren beste edizioen ardatza mantentzen dute.

METODOLOGIA



A.1 Fitxa teknikoa

Eragiketaren izena

Euskal Autonomia Erkidegoko kulturako finantzaketa eta gastu publikoaren estatistika.

Aztertutako gaia

EAEko administrazio publikoaren eta haren mendeko organismo autonomoen, sozietate publikoen eta fundazioen kultura-aurrekontuak.

Eragiketaren estatusa

Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailak garatua. EUSTATEk ofizializatua

Maiztasuna

Bi urtean behin

Informazioaren erreferentzia-urtea

2022

Informazioa biltzeko aldia

2023ko iraila – 2024ko otsaila

Informazioa biltzea


Informazioa zuzen jaso da fitxa egituratuaren bidez (euskarri informatikoan eta paperean), entitate desberdinetan: Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, udalak eta organismo autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak. Halaber, aholkularitza eta berariazko laguntza teknikoa ere eskaini dira, entitate bakoitzeko informatzaileen ezaugarri eta beharrianetara egokituak, hainbat teknikatako mix baten bitartez.

A.2 Azterlanaren behaketa-eremua

Honako hauek dira estatistika honen zundaketa-oinarriaren osagaiak:

- **Eusko Jaurlaritza, hiru foru-aldundiak eta EAeko 5.000 biztanletik gorako udalerrietako udalak** (73) barnean hartzen dituen errolda-izaerako landa-lana. Azterketa egiteko, horrela estratifikatu dira udalak: 5.000 biztanletik 20.000ra artekoak, 20.000 biztanletik gorakoak eta hiru hiriburuak.
- **5.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietako** tokiko administrazioen lagin adierazgarri bat oinarri hartuta (100 udal) egindako landa-lana; 5.000 biztanletik beherako udalerrien % 56,2 dira horiek, eta estratu horretan sartzen diren udalerrietako biztanleen % 58,3 bizi dira aipatutako udalerrri horietan.
- Administrazio batek edo batzuek % 100ean partaidetutako **organismo autonomo, sozietate publiko eta fundazioei** egindako **errolda-izaerako** landa-lana. Multzo honetan sartu dira partaidetza publikodun entitateak, baldin eta 2022an administrazioaren aldetik 500.000 eurotik gorako transferentziak jaso badituzte (guztira 46 erakunde).

KULTURA-GASTU LIKIDATUA




B.1 Kultura-gastu likidatuaren bilakaera

Kultura-gastu likidatua EAEko administrazio publikoek kultura egikaritutako aurrekontuei dagokie, eta ez dago kontsolidazio-jardunik tartean. EAEko administrazio publikoen likidatutako kultura-gastua 652.810.005 euro izan zen 2022an. % 26 igo zen 2020arekin alderatuta, eta % 17, berriz, 2018arekin alderatuta¹.

2022an gastu horren % 42 udalena zen (277,0 milioi euro); % 27 entitate publikoen mendeko organismo autonomo, sozietate publiko eta fundazioena (174, 9 milioi euro); % 16 Eusko Jaurlaritzarena (101,6 milioi euro); eta % 15 foru-aldundiena (99,3 milioi euro).

Administrazio publiko guztiek berreskuratu dute kultura-gastuaren maila, eta aurreko bi edizioekin alderatuta zenbatekoa handiagoa izan da; izan ere, aurreko edizioan pandemiaren ondorioz murriztu zen.

1. grafikoa. Kultura-gastu likidatua, administrazio-mailen arabera (€) 2008-2022.



¹ 2022ko ekitaldiko datuak aurreko bi ekitaldiekin alderatu dira; hots, 2020ko eta 2018ko datuekin. Pandemiatik haratago doan erreferentzia izan nahi dugu, pandemiak jarduera orokorrean eta kultura-jardueran izan zuen inpaktuagatik. Bestalde, grafikoetan edizio guztietako datuak (2008az geroztik) ikusgai badaude ere, tauletan, irakurketa errazteko asmoz, azken 5 edizioetako datuak sartu dira; hots, 2022koak, 2020koak, 2018koak, 2016koak eta 2014koak.

Aldakuntza	Eusko Jauriaritza	Foru aldundiak	Udalak	Erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak
2008-2022	▲ % 53,5	▼ % 5,1	▼ % 8,1	▲ % 24,4
2018-2022	▲ % 47,0	▲ % 26,5	▲ % 15,0	▲ % 2,9
2020-2022	▲ % 30,4	▲ % 34,4	▲ % 31,1	▲ % 12,6

2020ko edizioarekin alderatuta, gorakada nabarmenena foru-aldundien kasuan hauteman da (% 34); izan ere, 2020an gastua 73,9 milioi eurokoa izan zen, eta 2022an, berriz, 99,3 milioi eurokoa. Azpimarratu behar dugu entitate horiek lortu dutela serieko bigarren kopuru handiena, soilik 2008ko datuak gainditzen baitu.

Gastuaren bilakaera antzekoa izan da EAEko udalen kasuan; gastuak % 31 egin du gora aurreko edizioarekin alderatuta. 211,4 milioi euro izatetik 277,0 milioi euro izatera pasatu da, eta pandemiaren aurreko kopurua gainditu du (2018arekin alderatuta, kultura-gastuak % 15 egin du gora).

Aurreko edizioan Eusko Jauriaritzaren kasuan soilik ez zen murriztu kultura-gastua, batez ere pandemiaren eragina murrizteko eman ziren dirulaguntzengatik. Hala ere, eta aurreko edizioarekin alderatuta, egiaztatu da kultura-gastuak nabarmen egin duela gora: 77,9 milioi euro izatetik 101,6 milioi euro izatera (% 16ko gorakada). 2018arekin eta 2008arekin alderatuta, gorakada are nabarmenagoa da: 2018ko gastuarekiko % 47 egin zuen gora eta 2008ko gastuarekiko, berriz, % 54. Gastuaren gorakada nabarmen horren atzean transferentzia arrunten zein kapital-transferentzien gorakada dago (aurreko edizioan baino 3,8 eta 16,4 milioi euro gehiago, hurrenez hurren).

Erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioei dagokienez, aurreko edizioarekiko gorakada ez da hain nabarmena: gastu likidatua 155,3 milioi euro izatetik 174,9 milioi euro izatera pasatu da (% 13ko gorakada). 2018arekin alderatuta, gastuari dagokion kopurua mantendu egin da (% 3 egin du gora), baina kontuan izan behar dugu 2018arekin alderatuta entitate gutxiago daudela; zehazki, 5 entitate gutxiago: 4 baja 2020ko edizioan eta 1 baja edizio honetan.

Likidatutako gastuaren bilakaera aztertu ondoren, ikus dezakegu pandemiaren ondoren kultura-gastuak gora egin duela nabarmen. Gorakada hori pandemiaren inpaktu negatiboaren susperralditik haratago doa; izan ere, gastuaren gorakada pandemiaren aurreko edizioetakoa baino handiagoa da.


B.2 Kultura-gastuaren pisu erlatiboa

Udalek kultura-gastuaren esparruan egiten duten esfortzua beste entitate mota batzuek egiten dutena baino handiagoa da. 2022an EAEko udalen kultura-gastuaren pisu erlatiboa entitatearen aurrekontu totalaren % 7,9koa izan da. Nabarmen handitu da aurreko edizioarekiko, baina ez da pandemiaren aurreko mailara iritsi.

Foru-aldundien kasuan, berriz, 2022an kultura-gastua % 2,7koa izan zen. Adierazlea nahiko egonkor mantendu da aurreko edizioekiko: aurreko edizioan % 2,6 izan zen eta 2018an, berriz, % 2,9. Hala ere, udalen kasuan bezala, ez da pandemiaren aurreko mailara iritsi.

Amaitzeko, Eusko Jaurlaritzaren kultura-gastuaren pisu erlatiboa egonkor mantendu da aurreko edizioarekin alderatuta: aurrekontu totalaren % 0,7.

2. grafikoa. Kultura-gastu likidatua, aurrekontu totalekiko, administrazio-mailaren arabera (%) 2008-2022.



Aurrekontu totalen gorakada kulturako aurrekontuen gorakadarekin alderatzen badugu 2020-2022 eta 2018-2022 aldietan, ikus dezakegu egoera desberdina dela administrazio-mailaren arabera.

2020-2022 aldian, kulturako aurrekontua gehiago handitu da entitateen aurrekontu totala baino, administrazio-maila guztietan. Alde batetik, administrazio-maila desberdinetako kulturako aurrekontuen gorakada % 30-34 bitartekoa da; bestetik, aurrekontu totalaren gorakada % 20 baino gutxiagokoa da, kasu guztietan: gorakada handiena udalena da (% 19); jarraian, Eusko Jaurlaritzarena (% 17); eta, azkenik, foru-aldundiena (% 6). Aurreko edizioan ikus genuen pandemiak neurri handiago batean eragin ziela kultura-aurrekontuei, eta beherakada nabarmenagoa izan zen kultura-gastuan gastu totalan baino; hortaz, edizio honetako susperraldi nagusia gastuaren normalizaziotzat har daiteke.

2018-2022 aldian Eusko Jaurlaritzan bakarrik areagotu zen gehiago kulturako aurrekontua aurrekontu totala baino: kultura-gastuaren gorakada % 47koa izan zen, eta aurrekontu totalarena, berriz, % 21.


Estatistikaren hasierarekin alderatuta (2008), entitateen aurrekontu totalak gora egin zuen maila administratibo guztietan, baina ez neurri berean: % 9 udalen kasuan; % 28 foru-aldundien kasuan; eta % 47 Eusko Jaurlaritzaren kasuan. Kultura-gastuari dagokionez, nabarmen igo zen Eusko Jaurlaritzaren kasuan (% 54ko gorakada), baina behera egin zuen gainerako entitateetan (% 5 foru-aldundietan eta % 8 udaletan).

Aldakuntza	Aurrekontua	Eusko Jaurlaritza	Foru-aldundiak	Udalak
2008-2022	Aurrekontu totala	▼ % 47,3	▲ % 27,6	▲ % 8,5
	Kulturako aurrekontua	▼ % 53,5	▼ % 5,1	▼ % 8,1
2018-2022	Aurrekontu totala	▲ % 21,2	▲ % 36,6	▲ % 18,7
	Kulturako aurrekontua	▲ % 47,0	▲ % 26,5	▲ % 15,0
2020-2022	Aurrekontu totala	▲ % 16,5	▲ % 5,6	▲ % 18,8
	Kulturako aurrekontua	▲ % 30,4	▲ % 34,4	▲ % 31,1

2022an EAEko udalen batez besteko esfortzu kulturala % 7,9koa izan zen. Hiriburuetan bakarrik da esfortzu kulturala udalena baino txikiagoa; izan ere, hiriburuen esfortzua % 6,8koa izan zen 2022an. Esfortzu kultural handiena 20.000 biztanletik gorako udalek egin dute (% 8,9); jarraian, 5.000 eta 20.000 biztanle bitartekoeak (% 8,5), eta, azkenik, 5.000 biztanletik beherakoek (% 8,1). Estatistikaren azken edizioetan joera aldatu dela hauteman da udalerrri txikienetan. Hasierako

edizioetan udalerrri horietako esfortzua gainerakoena baino handiagoa zen, baina 2018az gerotzik joera aldatu da, eta, hiriburuetan salbu, udal txikienen kulturaren arloko esfortzua txikiagoa da gainerako mailekin alderatuta.

3. grafikoa. Kultura-gastu likidatua, udalen aurrekontu totali dagokienez, udalerrriaren neurriaren arabera (%) 2008-2022.



Aldakuntza	Aurrekontua	< 5.000 biztanle	5.000 – 20.000 biztanle	> 20.000 biztanle	Hiriburuak
2008-2022	Aurrekontu totala	▼ % 16,1	▲ % 9,4	▲ % 14,5	▲ % 12,6
	Kulturako aurrekontua	▼ % 33,6	▼ % 4,1	▲ % 32,0	▼ % 21,5
2018-2022	Aurrekontu totala	▲ % 16,4	▲ % 20,9	▲ % 15,1	▲ % 17,1
	Kulturako aurrekontua	▲ % 13,3	▲ % 12,4	▲ % 13,1	▲ % 13,4
2020-2022	Aurrekontu totala	▲ % 18,0	▲ % 21,0	▲ % 15,1	▲ % 19,3
	Kulturako aurrekontua	▲ % 50,2	▲ % 42,8	▲ % 29,3	▲ % 20,2

B.3 Kultura-gastuaren sailkapen ekonomikoa

Aurreko edizioetan gertatu bezala, gastu arrunta nabarmendu da gastu kapitalaren aurrean: hamar eurotik 7 eta 9 euro bitartean aztertutako administrazio-mailetako gastu arruntari dagozkio.

Gastu arrunt nabarmenena udalena da (% 94); jarraian, organismo autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak daude (% 90). Foru-aldundietan gastu arrunta % 77ra iristen da, eta Eusko Jaurlaritzaren kasuan % 69ra.

Denborak aurrera egin ahala gastu arruntaren pisua murriztu egin da udaletan, foru-aldundietan, eta, bereziki, Eusko Jaurlaritzan. Izan ere, kapital-gastuak gora egin du administrazio-maila guztietan, bereziki Eusko Jaurlaritzaren kasuan (% 30) eta foru-aldundietan (% 19). Hortaz, hau da gastu arruntari dagokionez balio absolutu handienak dituen edizioa administrazio-maila guztietan.

Eusko Jaurlaritzaren kasuan, gastu arruntak % 8 egin du gora 2020arekin alderatuta (65 milioi euro izatetik 70 milioi euro izatera), eta gastu kapitalak, berriz, % 146 (12,4 milioi euro izatetik 30,4 milioi euro izatera).


Foru-aldundietan gastu arruntak ia 13 milioi euro egin du gora. Gorakada hori transferentzia arruntetan hautemandako gorakadaren ondoriozkoa (% 20ko gorakada, 7 milioi euro gehiago) zein ondasun eta zerbitzuen gaineko gastu arruntaren ondoriozkoa da (% 41eko gorakada, 4 milioi euro gehiago, zerbitzuen eta kultura-jardueren kontratazioaren gorakadari lotuta). Transferentzia arruntaren kasuan, alde batetik, kulturaren arloko organismo autonomo, sozietate publiko eta fundazioei egindako transferentziek gora egin dute. Kapital-gastua bikoiztu egin da 2020arekin alderatuta, eta 9,7 milioi euro izatetik 19 milioi euro izatera pasatu da. 2020an inbertsio errealean kopurua 3,6 milioi eurokoa izan zen, eta 2022an, berriz, 6,7 milioi eurokoa, eta kapital-transferentzien kopurua bikoiztu egin zen 2020ko kopuruarekin alderatuta, eta 12,2 milioi euro izatera iritsi ziren.

Udalek areagotu dute gastu arrunta gehien 2022ko edizioarekin alderatuta. Ehunekoak % 29 egin du gora eta aurreko edizioan baino 58 milioi euro gehiago gastatu dira. Aurreko edizioan gastua nabarmen murriztu zen pandemiaren ondorioz, baina edizio honetan pandemiaren aurreko gastua gairatu da. Gorakada, batez ere, EAEko udalen gastu arruntaren igoeraren ondoriozkoa da; izan ere, II. kapituluko gastua igo da, 53,5 milioi euro izatetik 90,6 milioi euro izatera. Hala ere, pandemiaren ondorioz, gastu hori 20 milioi murriztu bazen ere, aurreko edizioetako kopuruak


gainditu egin dira. Halaber, langile-gastuak nabarmen igo dira: 57,5 milioi euro izatetik 68,1 milioi euro izatera (% 18 gehiago). EAEko udaletako gastu kapitalak % 83 egin du gora 2020arekin alderatuta; inbertsioek (% 51 gehiago) zein kapital-transferentziek (% 205 gehiago) egin dute gora.

Organismo autonomo, sozietate publiko eta fundazioetan gastua handiagoa izan da, gastu arruntaren kasuan zein kapitalaren kasuan. Gastu arruntaren gorakada ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntaren igoeraren gorakadaren (10 milioi euro gehiago) zein langile-gastuen gorakadaren ondorio (8 milioi euro gehiago) da.

4. grafikoa. Kultura-gastu likidatua, gastuaren izaera ekonomikoaren eta administrazio-mailen arabera 2008-2022.



B.4 Ondasun eta zerbitzuetako gastu arrunten tipologia



2022an EAEko administrazio publikoek 181 milioi euro bideratu zituzten ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntetara (kultura-gastu likidatuaren % 27,7). Gastu mota horrek % 39 egin du gora 2020ko gastuarekin alderatuta; zehazki, 51 milioi euro gehiago dira. Hortaz, 2020an pandemiaren ondorioz galdutako gastua berreskuratu da, batez ere udaletan, eta, aldi berean, pandemiaren aurreko edizioetako kopuruak gainditu dira.

Gastu arruntaren kopuruaren erdia udalei dagokie (90,6 milioi euro); jarraian, organismo autonomo, sozietate publiko eta fundazioek dute gastu gehien ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntei dagokienez (71,6 milioi euro, gastuaren % 40); jarraian, foru-aldundiek (13,5 milioi euro, gastuaren % 8); eta, azkenik, Eusko Jaurlaritzak (5,3 milioi euro, % 3).

Gastu arruntari dagokionez, gastuaren zatirik handiena (% 52) egiturazkoak ez diren kultura-zerbitzuak kontratatuz bideratu da: guztira 94,2 milioi euro. Pandemiak eta programazio-murrizketek gehien kaltetutako gastua izan zen, bai eta 2020az geroztik gehien areagotu den gastua ere. Bigarren gastu mota handiena hornikuntzan eta mantentze-lanetan egin da, guztira 32,4 milioi euro (% 18). Jarraian kulturako egiturazko gastuak daude (24,5 milioi euro, % 14), beste gastu mota batzuk (16,9 milioi euro, % 9), eta, azkenik, laguntzarako langileen gastuak (13 milioi euro, % 7).


Administrazio-mailari dagokionez, Eusko Jaurlaritzan beste gastu mota batzuk nabarmentzen dira ondasun eta zerbitzuetako gastu arrunten barruan. Entitate horrek, guztira, 2,6 milioi euro bideratu ditu gastu horretara; II. kapituluaren gastuaren % 49. Halaber, hornikuntza eta mantentze-lanetako gastua nabarmena da, zehazki, 2 milioi eurokoa (% 37).

Foru-aldundien kasuan, zerbitzuak eta kultura-jarduerak kontratatzena bideratutako gastua nabarmentzen da. Guztira, hiru entitateen artean 8,3 milioi euro bideratu dira gastu mota horretara (% 62). 2020ko edizioarekin alderatuta, nabarmen areagotu da foru-aldundietako gastua, eta estatistikako edizioetako kopururik handiena lortu da. Nabarmendu den bigarren gastu mota hornikuntza eta mantentze-lanetakoa izan da: 2,7 milioi euro (% 20).

EAEko udalek ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntaren erdia baino gehiago bideratu dute kultura-zerbitzuak kontratatzena; zehazki, 52,9 milioi euro (% 58). Foru-aldundien kasuan bezala, aurreko ediziotik gastu mota horrek gora egin duela hauteman da. Halaber, aipatu behar dugu gehien kaltetutako gastua izan zela pandemiaren murrizketen ondorioz, eta edizio honetako datuak kontuan hartuta, kultura-jarduera pandemiaren aurreko mailara bueltatu dela egiaztatu da (eta gainditu egin du, gastuari dagokionez). Udalek 14,7 milioi euro bideratu zituzten 2022an kulturako egiturazko zerbitzuetara (% 16) eta 13 milioi euro, berriz, hornikuntza eta mantentze-lanetara (% 41).

Amaitzeko, foru-aldundiekin eta udalekin gertatu bezala, organismo autonomo, sozietate publiko eta fundazioen kasuan egiturazkoak ez diren kultura-gastuak nabarmentzen dira. Guztira, entitate horiek 32,4 milioi euro bideratu dituzte gastu mota horretara (% 45), eta kopuru hori handitu egin da pandemiaren ondoren.

5. grafikoa. Gastu arrunta ondasun eta zerbitzuetan, zerbitzu-motaren eta administrazio-mailaren arabera (%) 2022.



1. taula. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntaren kapituluaren bidez finantzatutako zerbitzu eta kultura-jarduera motak (II. kap.), entitate motaren eta urtearen arabera. 2018-2022.

Zerbitzu eta kultura-jarduera mota	Urtea	Eusko Jaurlaritzak		Foru-aldundiak		Udalak		Organismo autonomoak eta sozietate publikoak		Guztira
		€	%	€	%	€	%	€	%	
Kulturako egiturazko zerbitzuak	2018	-	-	3.044.177	28,1	8.190.970	11,2	17.350.184	22,7	28.585.331
	2020	-	-	1.548.617	16,2	7.973.359	14,9	12.952.307	20,8	22.474.282
	2022	-	-	914.709	6,8	14.662.204	16,2	8.933.326	12,5	24.510.239
Laguntzarako langileak	2018	187.969	3,2	942.304	8,7	8.677.028	11,8	10.670.988	13,9	20.478.289
	2020	126.174	2,7	663.422	6,9	6.718.851	12,6	10.602.859	17,1	18.111.305
	2022	164.638	3,1	712.364	5,3	6.143.411	6,8	5.943.801	8,3	12.964.214
Egiturazko ez diren zerbitzuak	2018	-	-	3.906.771	36,1	42.250.922	57,5	26.172.751	34,2	72.330.445
	2020	293.948	6,3	4.252.242	44,5	23.512.319	44	21.126.641	34	49.185.150
	2022	585.879	11,1	8.312.884	61,5	52.868.933	58,4	32.448.619	45,3	94.216.315
Hornikuntza eta mantentze-gastuak	2018	2.273.131	38,6	2.506.175	23,2	11.950.256	16,3	13.916.965	18,2	30.646.527
	2020	2.035.956	43,8	2.116.038	22,1	12.800.001	23,9	11.147.484	17,9	28.099.479
	2022	1.970.437	37,2	2.667.656	19,7	12.972.143	14,3	14.769.846	20,6	32.380.082
Beste gastu batzuk	2018	3.428.280	58,2	426.380	3,9	2.370.497	3,2	8.475.723	11,1	14.700.880
	2020	2.188.270	47,1	985.752	10,3	2.486.029	4,6	6.300.739	10,1	11.960.790
	2022	2.574.908	48,6	913.049	6,8	3.923.831	4,3	9.480.495	13,2	16.892.283
Gastua guztira ondasunetan eta zerbitzuetan	2018	5.889.380	100	10.825.808	100	73.439.673	100	76.586.610	100	166.741.472
	2020	4.644.349	100	9.566.070	100	53.490.559	100	62.130.029	100	129.831.006
	2022	5.295.862	100,0	13.520.661	100,0	90.570.523	100,0	71.576.087	100,0	180.963.134

B.5 Kultura-gastuaren sailkapena kultura-arloaren arabera

Arteekin eta kultura-industriarekin lotutako jardueren gastua nabarmena da: % 60ko eta % 70eko pisua du Eusko Jaurlaritzan eta udaletan, hurrenez hurren, eta % 67 izatera iristen da organismo autonomoen, sozietate publikoen eta fundazioen kasuan. Aitzitik, foru-aldundietan ondareari bideratutako gastua gailentzen da: kultura-arlo horretako pisua % 59koa izan zen 2022an. Jaietara eta kultura herrikoira eta kulturako zuzendaritza eta zerbitzuetara bideratutako gastua beherago mantentzen da administrazio guztietan.


Entitate-motaren arabera, eta gastuaren bilakaeraren analisia egin ondoren, Eusko Jaurlaritzaren kasuan batez ere ondarrera bideratutako gastua areagotu da, eta 25,7 milioi euro izatetik 38,4 milioi euro izatera pasatu da (% 50eko gorakada). Gorakada hori, batez ere, txosten honen aurreko apartatutan aipatutako transferentziei dagokie. Halaber, gastu handiagoa bideratu da arteen eta industrien esparrura, eta 50,5 milioi euro izatetik 60,7 milioi euro izatera pasatu da (% 20ko gorakada). Kulturako bi esparru horien kasuan, gastuari lotutako kopuru handienak lortu dira estatistika abian jarri zenetik.

Foru-aldundietako joera antzekoa da: aurreko edizioaz geroztik ondarrera bideratutako gastua handitu da (% 37 gehiago, 42,6 milioi eurotik 58,5 milioi eurora), bai eta arte eta industrietara bideratutakoa ere (% 30 gehiago, 26,3 milioi eurotik 34,3 milioi eurora).

Udalen kasuan, azpimarratu behar dugu jaietako eta kultura herrikoiko gastua berreskuratu dela. 2020ko edizioan ikusi genuen pandemiak gehienbat kulturaren esparruan izan zuela eragina; izan ere, murrizketen ondorioz udalerrietako jai gehienak ezin izan ziren egin. 2020an gastu hori % 67 murriztu zen eta 9 milioi eurokoa izan zen. 2022an, berriz, gastu hori areagotu zen eta 30,4 milioi eurokoa izan zen. Kopuru horrek 2018ko eta 2016ko edizioetan jaietara bideratutako gastua gainditu zuen. Zifra absolutuetan, arteen eta industriaren esparrua da gehien hazi dena 2020arekin alderatuta; izan ere, EAEko udalek 44 milioi euro gehiago bideratu dituzte. Jaien kasuan, hein handi batean berreskuratu egin da esparru horretan pandemiaren ondorioz galdutako gastua.

Organismo autonomoen, sozietate publikoen eta fundazioen kasuan joera antzekoa da. Nabarmen egin du gora jaietara eta kultura herrikoira bideratutako gastuak, eta 2,7 milioi eurokoa izatetik 5,4 milioi eurokoa izatera pasatu da (% 102ko igoera); halaber, arte eta industrietara bideratutako gastua 90,9 milioi eurokoa izatetik 117 milioi eurokoa izatera pasatu da (% 29ko igoera).

6. grafikoa. Kultura-gastu likidatua, gastuaren izaera ekonomikoaren eta administrazio-mailen arabera (%) 2008-2022.



2. taula. Kultura-gastua, kultura-esparruen, entitate motaren (€ eta %) eta urtearen arabera. 2018-2022.

Esparru kulturala	Urtea	Eusko Jaurlaritza			Foru-aldundiak			Udalak			Organismo autonomoak eta sozietate publikoak		
		€	%	Bilaka era %	€	%	Bilaka era %	€	%	Bilaka era %	€	%	Bilaka era %
Ondarea	2018	22.413.845	32,4	22,1	48.367.395	61,6	16,0	35.177.430	14,6	-10,4	44.432.691	26,1	29,3
	2020	25.701.717	33,0	14,7	42.647.602	57,7	-11,8	33.278.329	15,7	-5,4	44.497.175	28,6	0,1
	2022	38.427.231	37,8	49,5	58.477.613	58,9	37,1	40.740.782	14,7	22,4	44.362.675	25,4	-0,3
Arteak eta industriak	2018	45.489.002	65,8	0,5	24.914.552	31,7	-12,9	165.019.468	68,5	2,8	103.261.097	60,7	-21,4
	2020	50.474.908	64,8	11,0	26.294.041	35,6	5,5	148.735.570	70,4	-9,9	90.878.225	58,5	-12,0
	2022	60.665.441	59,7	20,2	34.287.754	34,5	30,4	193.145.469	69,7	29,9	116.976.837	66,9	28,7
Jaiak eta kultura herrikoia	2018	6.021	0,0	-	79.716	0,1	-33,8	27.879.811	11,6	-0,3	4.672.723	2,7	-3,9
	2020	207.165	0,3	3340,7	42.273	0,1	-47,0	9.177.357	4,3	-67,1	2.653.451	1,7	-43,2
	2022	-	-	-100,0	197.865	0,2	368,1	30.396.256	11,0	231,2	5.357.454	3,1	101,9
Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	2018	1.230.160	1,8	-69,6	5.122.909	6,5	-39,5	12.850.295	5,3	-13,9	17.664.843	10,4	3,2
	2020	1.521.273	2,0	23,7	4.874.991	6,6	-4,8	20.178.356	9,5	57,0	17.290.466	11,1	-2,1
	2022	2.511.439	2,5	65,1	6.333.879	6,4	29,9	12.747.838	4,6	-36,8	8.181.473	4,7	-52,7
Guztira	2018	69.139.028	100,0	2,2	78.484.572	100,0	-0,5	240.927.004	100,0	-0,7	170.031.355	100,0	-9,4
	2020	77.905.063	100,0	12,7	73.858.906	100,0	-5,9	211.369.612	100,0	-12,3	155.319.316	100,0	-8,7
	2022	101.604.111	100,0	30,4	99.297.111	100,0	34,4	277.030.344	100,0	31,1	174.878.439	100,0	12,6


KULTURAN EGINDAKO GASTUA ADMINISTRAZIO- MAILEN ARABERA

Administrazio-mailen arabera kulturen egindako gastuan barne hartzen dira administrazioaren zuzeneko gastuak (Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien eta udalen kasuan), bai eta horien organismo autonomo, sozietate publiko eta fundazioenak ere, betiere diru-sarrera publikoek diru-sarreraren kopuru totalaren % 50 gainditzen badute.

Partidak bitan zenbatzea ekiditeko, administrazio-maila bakoitzean gastua kontsolidatzeko prozesu bat egin da. Horri esker, administrazio-maila bakoitzaren kultura-gastuaren ideia argia izan dezakegu, bakoitzaren deszentralizazio-maila alde batera utzita.

C.1 Transferentzien fluxuak administrazio-mailen arabera

2022an euskal administrazioek horien mendeko entitateetara egindako transferentzien kopurua 138,1 milioi eurokoa izan zen; 2020an, berriz, % 17 egin zuen gora eta 117,6 milioi eurokoa izan zen.



2020arekin alderatuta, gora egin dute administrazio-maila guztiek haien partaidetza duten sozietate publiko eta fundazioei egindako transferentziek. Hortaz,


- Eusko Jaurlaritzak 28,3 milioi euro transferitu zituen, eta 2020an, berriz, 24,3 milioi euro (% 16ko igoera).
- Foru-aldundiek 24,6 milioi euro transferitu zituzten, eta 2020an, berriz, 22,0 milioi euro (% 12ko igoera).
- Udalek 85,1 milioi euro transferitu zituzten, eta 2020an, berriz, 71,3 milioi euro (% 19ko igoera).

Eusko Jaurlaritzak, 2022an, 106,0 milioi euro bideratu zituen kulturara (administrazioaren beraren gastuak eta haren mendeko –edo haren partaidetza duten– sozietate publiko eta fundazioenak barne), hau da, 2020an baino % 28 gehiago.

Foru-aldundien eta haien mendekoak diren edo haien partaidetza duten sozietate publiko eta fundazioen gastu kontsolidatua 105,7 milioi eurokoa izan zen 2020an; hots, aurreko edizioan baino % 28 gehiago.

Udalen eta haien mendeko –edo haien partaidetza duten– sozietate publiko eta fundazioen gastu kontsolidatua izan da aurreko ediziotik iguera nabarmenena izan duena. % 29 igo da, eta 303,0 milioi eurokoa izatera iritsi da.

7. grafikoa. Kultura-gastua, administrazio-mailen arabera (€) 2010-2022



- Eusko Jaurlaritza
- Foru-aldundiak
- Udalak


Aldakuntza	Eusko Jaurlaritza	Foru-aldundiak	Udalak
2010-2022	▲ % 32,7	▲ % 9,6	▼ % 6,2
2018-2022	▲ % 36,7	▲ % 24,1	▲ % 9,8
2020-2022	▲ % 28,2	▲ % 28,4	▲ % 28,5

C.2 Kultura-gastua kultura-sektorearen eta administrazio-mailen arabera

Jarraian, kontsolidatutako kultura-gastua aztertuko dugu, administrazio-mailen eta kultura-esparruen arabera. Jarraian jasota dagoen irudikapen grafikoa kontuan hartuta, honako alderdi hauek azpimarratu ditzakegu:

- Eusko Jaurlaritzan arteetara eta industria kulturaletara bideratutako gastua nabarmentzen da (% 62). Ondareak kontsolidatutako kultura-gastuaren % 35 jasotzen du, eta gainerako % 3a zuzendaritza eta kultura-zerbitzuetara bideratzen da.
- Foru-aldundietan, aldiz, ondarea nabarmentzen da. Hiru foru-aldundiek kultura-gastu kontsolidatuaren % 57 esparru horretako sektoreetara bideratu dute. Arte eta kultura-industrietara bideratutako gastuaren pisu erlatiboa % 36koa da, eta gastuaren % 7 zuzendaritza eta kultura-zerbitzuetara bideratu da.
- Udalen kasuan, berriro ere, arteen eta industriren arloko gastua nabarmendu da (gastuaren % 64); gastuaren % 18, aldiz, ondarrera bideratu da; % 12 jaietara eta kultura herrikoira eta % 7 zuzendaritza eta zerbitzu orokorretara. Hortaz, aurreko edizioan pandemiaren ondoriozko murrizketengatik jaien eta kultura herrikoiren esparruan galdutako pisua berreskuratu da.

8. grafikoa. Kultura-gastua kultura-esparruen eta administrazio-mailen arabera (%) 2010-2022.



Entitate-mota bakoitzaren kultura-sektoreen eta -esparruen araberako gastuari dagokionez, aurretik aipatu den bezala, Eusko Jaurlaritzan arteetara eta kultura-industrietara bideratutako gastua gailentzen da. Esparru horren barruan, gastuaren zati handiena musikari dagokio (entitatearen gastu totalaren % 29, 30,3 milioi euro guztira). Sektorerik horretara bideratutako gastuak gora egin du aurreko edizioarekin alderatuta (% 25eko igoera). Jarraian, zinema eta ikus-entzunezkoen sektorera 16,8 milioi euro bideratu dira (gastuaren % 16; eta % 25eko gorakada 2020arekin alderatuta). Halaber, izandako bilakaerarengatik antzerkia eta dantzaren sektorea nabarmendu da. Kasu horretan, 2020an baino % 49 gehiago bideratu da, eta 3,8 milioi euro izatetik 5,6 milioi euro izatera pasatu da. Ondarearen esparruaren barruan, museoaren sektoreak du pisu gehien; izan ere, 2022an sektore horretara 16,1 milioi euro bideratu ziren, eta zifra hori aurreko edizioko kopuruaren oso antzekoa da. Halaber, ondare eta arkeologiara bideratutako kopuruak gora egin du, eta 5,4 milioi euro izatetik 14 milioi euro izatera pasatu da (% 159 igo da).

Foru-aldundien kasuan, museoetako gastua azpimarratu behar da (32,3 milioi euro), eta 2020arekin alderatuta izandako gorakada (% 28) aipatu behar dugu. Hala ere, ondarearen barruan bilakaera are positiboagoa izan duen beste sektore bat dago: ondare eta arkeologia sektorea, hain zuzen ere. 2020an 7,6 milioi euro izatetik 2022an 13,3 milioi euro izatera pasatu zen (% 76ko gorakada). Arteak eta kultura-industriaren esparruari dagokionez, baliabide gehienak kultura-ekintzara bideratzen dira (ia 18 milioi euro), eta kopuruak nabarmen egin du gora 2020az geroztik. Jarraian musika dago (9 milioi euro). Behera egin dute literatura eta argitalpenaren sektoreek (% 40 murriztu da sektore horri bideratutako kopurua); bertsolaritzak (% 31 gutxiago) eta ikusizko arteek (%30 gutxiago). Gora egin dute arlo hauetara bideratutako baliabideek: jaiak eta kultura herrikoia (42 mila euro izatetik 198 mila euro izatera) eta zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak (5,5 milioi euro izatetik 7,2 milioi euro izatera).

Bukatzeko, udalen kasuan azpimarratu behar dugu 2020-2022 aldian jaietara eta kultura herrikoira bideratutako baliabideak berreskuratu direla. Izan ere, edizio honetan 35,7 milioi euro bideratu dira, aurreko edizioan baino ia 24 milioi euro gehiago. Gorakada horren eraginez, pandemiaren aurreko balioak berreskuratu eta gainditu dira. Artea eta kultura-industriaren arloan bideratu dituzte baliabide gehien EAEko udalek. 193,1 milioi euro bideratu dira esparru horretara, eta horietatik 77,5 milioi euro kultura-ekintzaren sektoreari dagozkio (EAEko udalen gastu kontsolidatu totalaren % 26). Sektorerik horrek % 52ko gorakada izan du. Jarraian, musikaren sektorea dago (72,1 milioi euro). Bertsolaritzaren sektorea ere azpimarratu behar dugu, 191 mila euro izatetik 315 mila euro izatera pasatu baita (% 65eko gorakada), eta pandemiaren aurreko edizioen antzeko kopurua lortu du. Ondarearen esparruan, baliabideen zati handiena liburutegietara bideratu da; izan ere,

EAEko udalek, guztira, 33 milioi euro bideratu dituzte sektore horretara (gastu totalaren % 11); hots, aurreko edizioan baino % 8 gehiago. Agiritegien sektoreak izan du bilakaera onena, gastua milioi bat euro igo baita (% 40).

3. taula. Kultura-gastua, kultura-esparruaren eta administrazio-mailen (€ eta %) eta urtearen arabera. 2018-2022.

Kulturasektorea	Urtea	Eusko Jaurlaritzza			Foru-aldundiak			Udalak		
		€	%	Bilakaera %	€	%	Bilakaera %	€	%	Bilakaera %
Ondarea	2018	27.973.081	36,1	46,4	52.024.321	61,1	14,5	50.379.717	18	-2,2
	2020	28.269.529	34,2	1,1	46.706.233	56,7	-10,2	47.993.287	20,4	-4,7
	2022	37.511.392	35,4	32,7	60.535.305	57,3	29,6	53.630.018	17,7	11,7
Ondarea eta arkeologia	2018	4.944.639	6,4	15,6	10.100.618	11,9	-9,7	1.450.350	0,5	-80,2
	2020	5.381.120	6,5	8,8	7.578.494	9,2	-25,0	2.046.946	0,9	41,1
	2022	13.954.129	13,2	159,3	13.338.367	12,6	76,0	2.147.040	0,7	4,9
Liburutegiak	2018	4.458.622	5,8	74,6	8.986.929	10,6	42,4	32.081.406	11,6	13,2
	2020	4.586.024	5,5	2,9	7.468.198	9,1	-16,9	30.710.885	13,0	-4,3
	2022	4.212.106	4,0	-8,2	8.126.819	7,7	8,8	33.002.642	10,9	7,5
Agiritegiak	2018	2.944.217	3,8	-6,4	7.772.287	9,1	158,5	3.208.262	1,2	5,0
	2020	2.055.896	2,5	-30,2	6.400.142	7,8	-17,7	2.394.923	1,0	-25,4
	2022	3.211.595	3,0	56,2	6.727.772	6,4	5,1	3.362.976	1,1	40,4
Museoak	2018	15.625.603	20,2	71,2	25.164.486	29,6	1,0	13.639.699	4,9	6,6
	2020	16.246.490	19,6	4,0	25.259.398	30,7	0,4	12.840.533	5,4	-5,9
	2022	16.133.562	15,2	-0,7	32.342.346	30,6	28,0	15.117.360	5,0	17,7
Arteak eta industriak	2018	47.033.273	60,7	-3,3	27.458.456	32,3	-15,2	164.365.553	59,5	-8,3
	2020	51.020.181	61,7	8,5	30.010.405	36,5	9,3	140.885.110	59,7	-14,3
	2022	65.280.666	61,6	28,0	37.739.544	35,7	25,8	193.081.211	63,7	37,0
Antzerkia eta dantza	2018	3.188.143	4,1	9,9	2.001.201	2,4	-20,8	22.273.145	8,1	-24,1
	2020	3.775.458	4,6	18,4	2.848.364	3,5	42,3	20.527.467	8,7	-7,8
	2022	5.631.032	5,3	49,1	3.023.712	2,9	6,2	30.368.088	10,0	47,9
Musika	2018	21.306.719	27,5	2,1	7.951.323	9,3	-14,4	63.129.552	22,9	9,6
	2020	24.366.598	29,5	14,4	9.591.203	11,7	20,6	60.536.947	25,7	-4,1
	2022	30.328.111	28,6	24,5	9.011.313	8,5	-6,0	72.096.269	23,8	19,1
Ikusizko arteak	2018	1.584.888	2,0	16,6	1.206.704	1,4	-36,1	3.406.624	1,2	-10,2
	2020	1.462.755	1,8	-7,7	2.442.874	3,0	102,4	2.632.866	1,1	-22,7
	2022	909.711	0,9	-37,8	1.710.448	1,6	-30,0	5.398.209	1,8	105,0
Zinema eta ikusentzunezkoak	2018	13.030.809	16,8	24,9	3.715.506	4,4	203,7	6.612.913	2,4	26,8
	2020	13.405.672	16,2	2,9	4.069.932	4,9	9,5	5.323.537	2,3	-19,5
	2022	16.815.915	15,9	25,4	5.288.987	5,0	30,0	6.924.784	2,3	30,1
Literatura eta argitalpena	2018	1.927.624	2,5	17,5	418.502	0,5	14,8	475.647	0,2	80,8
	2020	1.981.175	2,4	2,8	845.991	1,0	102,1	764.612	0,3	60,8
	2022	2.099.750	2,0	6,0	507.177	0,5	-40,0	429.413	0,1	-43,8
Kultura-ekintza	2018	5.808.866	7,5	-48,8	11.734.218	13,8	-28,8	68.152.562	24,7	-17,5
	2020	5.802.835	7,0	-0,1	9.842.931	12,0	-16,1	50.909.020	21,6	-25,3
	2022	9.263.397	8,7	59,6	17.942.798	17,0	82,3	77.549.007	25,6	52,3
Bertsolaritza	2018	186.223	0,2	78,7	431.002	0,5	-29,5	315.110	0,1	-23,7
	2020	225.690	0,3	21,2	369.110	0,4	-14,4	190.662	0,1	-39,5
	2022	232.749	0,2	3,1	255.110	0,2	-30,9	315.440	0,1	65,4
Jaiak eta kultura herrikoia	2018	10.059	0,0	-	79.716	0,1	-33,8	32.548.496	11,8	-0,8
	2020	207.165	0,3	1959,5	42.273	0,1	-47,0	11.830.808	5,0	-63,7
	2022	0	0,0	-100,0	197.865	0,2	368,1	35.744.209	11,8	202,1
Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	2018	2.510.408	3,2	-55,5	5.572.644	6,5	-41,7	28.785.156	10,4	49,5
	2020	3.216.757	3,9	28,1	5.544.898	6,7	-0,5	35.103.431	14,9	21,9
	2022	3.219.963	3,0	0,1	7.191.728	6,8	29,7	20.562.847	6,8	-41,4
Guztira	2018	77.526.820	100,0	5,6	85.135.137	100,0	-2,7	276.078.922	100	-2,4
	2020	82.713.633	100,0	6,7	82.303.808	100,0	-3,3	235.812.635	100,0	-14,6
	2022	106.012.020	100,0	28,2	105.664.443	100,0	28,4	303.018.285	100,0	28,5

Kultura-gastua esparruen eta sektoreen arabera aztertu ondoren, orain udalek egindako gastua aztertuko dugu kultura-sektoreen arabera. Horretarako, kontuan hartuko ditugu, alde batetik lurralde historikoak, eta, bestetik, udalerrien biztanle-kopurua.

Lurralde historikoetako udaletan 2022an egindako kultura-gastuaren ehunekoek erakusten dutenaren arabera, guztietan helmuga nagusia arteen eta kultura-industrien esparrua da: % 65 Bizkaian (103,8 milioi euro); % 62 Gipuzkoan (70 milioi euro) eta % 61 Araban (19,4 milioi euro). 2020tik 2022ra esparru horretara bideratutako gastuak gora egin du lurralde guztietan. Gipuzkoako udaletan igo da gehien (% 46), eta, gehienbat, sektore hauen ondorioz: antzerkia eta dantza (aurreko edizioan baino 5 milioi euro gehiago bideratu dira); musika (6,4 milioi euro gehiago); eta kultura-ekintza (8,4 milioi euro gehiago).


Gora egin du ondarearen esparruari bideratutako gastuak lurralde historiko guztietan, baina gorakada desberdina da lurralde batetik bestera. Hala, Araba da 2020arekin alderatuta ondarearen esparruan gastua gehien handitu duen lurraldea, eta, ehuneko handiena lortu duena. Arabako udalen kasuan ondare bideratutako gastuaren ehunekoa % 20ra iritsi da, eta, gorakada, kopuru erlatiboetan, % 46koa izan da (4,2 milioi euro izatetik 6,2 milioi euro izatera). Igoera horren atzean agiritegien sektoreko (% 98ko gorakada) eta liburutegien sektoreko (% 14ko gorakada) igoera dago. Bizkaian ondarearen esparruko gastuak % 13 egin du gora, eta Gipuzkoan, berriz, % 2.

Jaietara eta kultura herrikoira bideratutako baliabideen gorakada nabarmena da lurralde historiko guztietan. Hala ere, nabarmenagoa da Arabako udaletan, gastuak % 255 egin baitu gora, eta 1,5 milioi euro izatetik 5,2 milioi euro izatera pasatu da. Kopuru absolutuetan, Gipuzkoako eta Bizkaiko udalen kasuan egin du gora gehien gastu horrek; zehazki, 10 milioi euro lurralde bakoitzean.

Bigarren kultura-esparrua, gastuari erreparatuta, jaien eta kultura herrikoiaren esparrua da, 20.000 biztanletik beherako udalerrietan. Udalerri txikienetan, 5.000 biztanletik beherakoetan, jaietara eta kultura herrikoiara gastuaren % 23 bideratzen da, eta 5.000 eta 20.000 biztanle bitarteko udaletan, berriz, % 18. Udalerri handiagoetako udalei dagokienez, hiriburuetan ondarrera bideratzen da gastuaren % 23, eta % 13, berriz, hiriburuak ez diren 20.000 biztanletik gorako udalerrietan.

Zuzendaritza eta zerbitzu orokorren esparruak du pisu gutxien 5.000 biztanletik beherako udalerrietan (% 5), 5.000 eta 20.000 biztanle bitartekoetan (% 7) eta hiriburuetan (% 5). 20.000 biztanletik gorakoetan esparru horrek gastuaren % 9 hartzen du, baina azken postuan jaien eta kultura herrikoiaren esparrua dago (% 7).

9. grafiko. Kultura-gastua kultura-esparruaren eta udalerraren neurriaren arabera (%) 2010-2022.



GASTUA KULTURAN ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN MULTZOAN



Txostenaren kapitulu honetan EAEko administrazio publikoek orokorrean kulturean egindako gastua aztertuko dugu. Baterako gastu horretara iristeko, administrazio-mailen arabera gastu kontsolidatua abiapuntu hartuta, hiru administrazio-mailetako administrazioen arteko transferentziak iragazi dira berriro ere.

Informazioa emateko bi ikuspegi baliatuko dira:


Kontsolidazioa jatorrian

Kontsolidazio-mota horrek partiden jatorria erakusten du. Finantzatzen duen entitateari lotuta jarraitzen du transferentziak, eta transferentzia jasotzen duen entitateari kentzen zaio zenbateko bikoiztua.



Kontsolidazioa helmugan

Kontsolidazio-mota horrek transferentzien helmuga erakusten du. Jasotzen duen entitateari lotuta jarraitzen du transferentziak, eta finantzatzen duen entitateari kentzen zaio zenbateko bikoiztua.



D.1 Transferentzia-fluxuak administrazio-mailen artean

Administrazio-mailen arteko transferentziak, gehienbat, udalez gairik administrazioetatik (Eusko Jaurlaritza eta foru-aldundiak) etortzen dira udaletara eta berorien mendeko entitateetara; eta, neurri apalagoan, Eusko Jaurlaritzatik eta udaletatik foru-aldundien mendeko sozietate publiko eta fundazioetara.

Eusko Jaurlaritzak 22,1 milioi euro transferitu zituen administrazioaren beste maila batzuetara 2022an, eta, hortaz, 2020ko kopuruarekin alderatuta, % 64 igo zen. 16,2 milioi euro udaletara transferitu ziren; 5,7 milioi euro udalen mendeko sozietate publiko eta fundazioetara; 150 mila euro foru-aldundietara; eta 61 mila euro foru-aldundien mendeko edo partaidetzapeko sozietate publikoetara.

2022an foru-aldundiek 4,3 milioi euro transferitu zituzten, 2020an baino % 34 gehiago. 4 milioi zuzenean udaletara transferitu ziren, eta 350 mila euro udalen mendeko edo partaidetzapeko sozietate publiko eta fundazioetara.

2022an udalek 185 mila euro transferitu zituzten: 144 mila euro beste udal batzuetara eta 41 mila euro udalen mendeko edo partaidetzapeko sozietate publiko eta fundazioetara.

5. taula. Administrazio-mailen arteko transferentzien fluxuak eta bilakaera 2020-2022.


Egindako transferentziak		Eusko Jaurlaritza	Eusko Jaurlaritzaren mendeko edo partaidetzapeko sozietate publikoak eta fundazioak	Foru-aldundiak	Foru-aldundien mendeko edo partaidetzapeko sozietate publikoak eta fundazioak	Udalak	Udalen mendeko edo partaidetzapeko sozietate publikoak eta fundazioak	Egindako transferentzien guztizko kopurua
Eusko Jaurlaritza	€ 2020-2022 aldiko bilakaera	0 € -	3.108 € -	150.000 € -	60.666 € -27,5	16.239.842 € 68,8	5.675.031 € 49,1	22.128.647 € 63,8
Foru-aldundiak	€ 2020-2022 aldiko bilakaera	0 € -	0 € -	0 € -	6.659 € -	3.985.482 € 60,0	349.981 € -54,0	4.342.122 € 33,6
Udalak	€ 2020-2022 aldiko bilakaera	0 € -	0 € -	0 € -	0 € -100,0	143.521 € 133,0	41.387 € -19,0	184.908 € -93,3
Jasotako transferentzien guztizko kopurua	€ 2020-2022 aldiko bilakaera	3.108 € -		217.325 € -92,0		26.435.244 € 57,4		26.655.676 € 36,7

D.2 Jatorrian kontsolidatutako kultura-gastua

Jatorrizko datuak kontsolidatzeko unean, transferentziak entitate finantzatzailearekin lotuta egoten jarraitzen du, eta horri esker jakin daiteke administrazio-maila bakoitzak EAEko gastu garbian izan duen garrantzia.

Kontsolidazioa jatorrian

Kontsolidazio-mota horrek partiden jatorria erakusten du. Finantzatzen duen entitateari lotuta jarraitzen du transferentziak, eta transferentzia jasotzen duen entitateari kentzen zaio zenbateko bikoiztua.




EAEko kultura-gastu kontsolidatua 488,0 milioi eurokoa izan zen 2022an. Aurreko edizioarekin alderatuta % 28 egin du gora; 2018ko edizioarekin alderatuta % 15; eta 2010arekin alderatuta, berriz % 2 (kontsolidazio-sistema horiek lehenbiziko aldiz erabili ziren edizio horretan).

EAEko kopuru kontsolidatutik, 106 milioi euro Eusko Jaurlaritzari dagozkio (guztizko gastu kontsolidatuaren % 22); 105,4 milioi euro foru-aldundiei (gastuaren % 22); eta gastuaren zati handiena, 276,6 milioi euro, EAEko udalei (gastuaren % 57). Bilakaerari dagokionez, EAEko guztizko gastu kontsolidatuaren joera bera ikusten da 2020. urtearekin alderatuta, igoerak % 26 (udalak) eta % 33 (foru-aldundiak) artean baitaude (Eusko Jaurlaritzarena % 28koa izan da). 2018arekin alderatuta, igoera nabarmenagoa izan da Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien kasuan, % 37 eta % 24 egin baitute gora, hurrenez hurren. Udalen gastu kontsolidatuak % 6 egin du gora 2018arekin alderatuta.

Aurreko edizioan ez bezala, edizio honetan estatistika-edizio guztien artean EAEn kultura-gastu kontsolidatu handiena lortu da. Izan ere, 2020an EAEko kultura-gastu kontsolidatua edizio guztietako gastu txikiena izan zen (381,3 milioi euro), hein handi batean COVID-19aren ondoriozko pandemiak jardueran izan zuen eraginaren eta kultura-aurrekontuen ondorioz.

10. grafikoa. Jatorrian kontsolidatutako kultura-gastua, administrazio-mailen arabera (€) 2010-2022.




Aldakuntza	Eusko Jaurlaritza	Foru-aldundiak	Udalak	EAE, guztira
2018-2022	▲ % 36,7	▲ % 24,4	▲ % 6,1	▲ % 15,4
2020-2022	▲ % 28,2	▲ % 32,5	▲ % 26,3	▲ % 28,0

6. taula. Administrazio-maila bakoitzaren garrantzia erlatiboa EAEko kultura-gastuan (€ eta %) urteka . 2018-2022.

	Urtea	Kultura-gastua, guztira		Transferentzia bidezko diru-sarrerak		Kultura-gastu kontsolidatua	
		€	%	€	%	€	%
Eusko Jaurlaritza	2018	77.526.820	17,7	5.350	0,0	77.521.470	18,3
	2020	82.713.633	20,6	0	0,0	82.713.633	21,7
	2022	106.012.020	20,6	3.108	0,0	106.008.912	21,7
Foru-aldundiak	2018	85.135.137	19,4	383.066	2,4	84.752.071	20,0
	2020	82.303.808	20,5	2.715.652	13,9	79.588.156	20,9
	2022	105.664.443	20,5	217.325	0,8	105.447.118	21,6
Udalak	2018	276.078.922	62,9	15.321.818	97,5	260.757.104	61,6
	2020	235.812.635	58,8	16.790.236	86,1	219.022.399	57,4
	2022	303.018.285	58,9	26.435.244	99,2	276.583.042	56,7
EAE, guztira	2018	438.740.879	100,0	15.710.234	100,0	423.030.645	100,0
	2020	400.830.076	100,0	19.505.888	100,0	381.324.187	100,0
	2022	514.694.748	100,0	26.655.676	100,0	488.039.072	100,0

Ezaugarriak aztertu ondoren, ondorioztatu dezakegu 10 eurotik ia 9 (% 87) gastu arrunta direla. Proportzio hori handiagoa da udalen kasuan (% 96), baina txikiagoa Eusko Jaurlaritzan (% 72) eta foru-aldundietan (% 78). EAEko gastu kontsolidatuaren kapital-gastuen pisua % 12 da. Kapital-gastuen proportzioa handiagoa da Eusko Jaurlaritzaren (% 27; nabarmen igo da aurreko edizioekin alderatuta) eta foru-aldundien kasuan (% 19; proportzio horrek ere gora egin du 2020arekin alderatuta, baina gutxiago).

11. grafikoa. Jatorrian kontsolidatutako kultura-gastua, gastuaren izaera ekonomikoaren eta administrazio-mailen arabera(%) 2010-2022.



EAEko administrazioen gastu kontsolidatuaren kapitulukako banaketak honako hau uzten du agerian:

- ▮ **Gastu arrunten** artean, kopuru handiena ondasun eta zerbitzuen da (II. kapitulua), 172,2 milioi euro (EAEko gastu kontsolidatuaren % 35). Jarraian, langile-gastuak daude (I. kapitulua), 167,2 milioi euro dira (kontsolidatutako gastuaren % 34). 2020ko edizioari dagokionez, nabarmenezkoa da ondasun eta zerbitzuetako gastu arrunten gorakada, kapitulu ekonomiko horren gastuak % 40 egin baitu gora. Langile-gastuek % 14 egin dute gora, aurreko edizioarekin alderatuta.
- ▮ **Transferentzia arrunten** kasuan (IV. kapitulua), 85,2 milioi euro dira guztira; hau da, gastu kontsolidatu totalaren % 18, eta kopuruak % 11 egin du gora.
- ▮ **Kapital gastuen** barruan inbertsio errealak eta kapital-transferentziak daude, eta berdin banatzen dira. 2022an 29,2 milioi euro inbertitu dira kulturaren (gastuaren % 6), eta 29,2 milioi euro transferitu dira kapital-gastuetarako (gastuaren % 6).
- ▮ Aurreko edizioarekin alderatuta kapitulu ekonomikoek gora egin badute ere, gorakada nabarmenagoa izan da **kapital-transferentzien** kasuan: 2020an 9,7 milioi euro transferitu ziren, eta 2022an, berriz, 29,2 milioi euro (% 200eko igoera). Gorakada hori Eusko Jaurlaritzaren gorakadaren ondoriozkoa da; izan ere, aurreko edizioan baino ia 13 milioi euro gehiago transferitu ditu, eta, hortaz, multzo estatistiko honetako kopuru handiena lortu du. Halaber, maila txikiagoan bada ere, foru-aldundietako kapital-transferentzien ondorio ere bada, aurreko edizioan baino ia 7 milioi euro gehiago transferitu baitituzte.
- ▮ Honako bilakaera hau ondorioztatu daiteke 2020tik 2022ra:
 - ▮ Eusko Jaurlaritzan nabarmen areagotu dira beste entitate batzuei egindako transferentziak, arruntak (% 10) zein kapital-transferentziak gehien bat (% 204), baita inbertsioak ere (% 33).
 - ▮ Foru-aldundietan gehienbat kapital-transferentziak areagotu dira (% 203) eta ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak (% 35).
 - ▮ Udalen kasuan gora egin dute gastu mota guztiek. Gorakada nabarmenenak ondasun eta zerbitzuetako gastu arrunten kasuan (% 44) eta langile-gastuen kasuan (% 18) nabaritu dira.

7. taula. EAEko administrazio publikoek kulturaren egindako gastuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren, administrazio-mailen (€ eta %) eta urtearen arabera. 2018-2022.


Kapitulu ekonomikoa	Urtea	Eusko Jaurlaritza			Foru-aldundiak			Udalak			Guztira		
		€	%	Bilakaera %	€	%	Bilakaera %	€	%	Bilakaera %	€	%	Bilakaera %
Gastu arruntak	2018	54.107.704	83,2	-9,3	68.412.957	83,3	-6,2	253.826.904	92	3,5	376.347.566	89	-0,4
	2020	69.027.490	83,5	27,6	68.865.901	86,5	0,7	209.061.527	95,5	-17,6	346.954.918	91,0	-7,8
	2022	76.432.380	72,1	10,7	82.292.725	78,0	19,5	265.708.868	96,1	27,1	424.739.708	87,0	22,4
I. kap. Langile-gastuak	2018	16.006.076	24,6	11,9	26.923.129	32,8	0,9	107.980.935	39,1	7,5	150.910.140	35,7	6,7
	2020	17.096.776	20,7	6,8	28.570.026	35,9	6,1	101.121.414	46,2	-6,4	146.788.216	38,5	-2,7
	2022	18.266.880	17,2	6,8	29.227.434	27,7	2,3	119.730.128	43,3	18,4	167.224.442	34,3	13,9
II. kap. Ondasun eta zerbitzuetakoko gastu arruntak	2018	17.960.435	27,6	19,3	25.378.119	30,9	-2,8	123.402.918	44,7	4,4	166.741.472	39,4	4,6
	2020	14.202.246	17,2	-20,9	22.550.354	28,3	-11,1	86.557.110	39,5	-29,9	123.309.711	32,3	-26,0
	2022	16.818.947	15,9	18,4	30.394.272	28,8	34,8	124.972.977	45,2	44,4	172.186.196	35,2	39,6
III. kap. Finantzagastuak	2018	28.521	0	-8,7	26.452.28	0	-20,5	81.080,81	0	-76,2	136.053,73	0	-66,4
	2020	36.029	0,0	26,3	41.041	0,1	55,2	45.663	0,0	-43,7	122.733	0,0	-9,8
	2022	10.909	0,0	-69,7	13.274	0,0	-67,7	91.559	0,0	100,5	115.742	0,0	-5,7
IV. kap. Transferentzia arruntak	2018	20.112.672	30,9	-33,6	16.085.258	19,6	-20	22.361.970	8,1	-15	58.559.900	13,8	-23,7
	2020	37.692.439	45,6	87,4	17.704.479	22,2	10,1	21.337.340	9,7	-4,6	76.734.258	20,1	31,0
	2022	41.335.644	39,0	9,7	22.657.745	21,5	28,0	21.219.939	7,7	-0,6	85.213.328	17,5	11,0
Kapital-gastuak	2018	9.844.524	15,1	-4,8	12.782.309	15,6	22,1	21.515.748	7,8	5,3	44.142.581	10,4	7
	2020	13.186.703	15,9	33,9	10.722.256	13,5	-16,1	9.925.403	4,5	-53,9	33.834.362	8,9	-23,4
	2022	28.244.837	26,6	114,2	19.460.036	18,5	81,5	10.709.555	3,9	7,9	58.414.428	12,0	72,6
VI. kap. Inbertsio errealak	2018	6.438.417	9,9	10,3	9.554.506	11,6	30,3	21.406.380	7,8	9,8	37.399.304	8,8	14,5
	2020	6.912.555	8,4	7,4	7.516.180	9,4	-21,3	9.667.676	4,4	-54,8	24.096.412	6,3	-35,6
	2022	9.193.839	8,7	33,0	9.747.782	9,2	29,7	10.267.160	3,7	6,2	29.208.781	6,0	21,2
VII. kap. Kapital-transferentziak	2018	3.406.106	5,2	-24,3	3.227.803	3,9	3	109.367	0	-88,4	6.743.277	1,6	-21,4
	2020	6.274.148	7,6	84,2	3.206.075	4,0	-0,7	257.727	0,1	135,7	9.737.950	2,6	44,4
	2022	19.050.998	18,0	203,6	9.712.253	9,2	202,9	442.395	0,2	71,7	29.205.646	6,0	199,9
Finantzaaktibo eta pasiboak	2018	1.086.400	1,7	-67,3	940.321	1,1	-72,4	513.778	0,2	-83	2.540.499	0,6	-73,9
	2020	499.439	0,6	-54,0	0	0,0	-100,0	35.468	0,0	-93,1	534.908	0,1	-78,9
	2022	1.331.695	1,3	166,6	3.694.357	3,5	-	164.618	0,1	364,1	5.190.670	1,1	870,4
VIII. kap. Finantza-aktiboak	2018	1.032.099	1,6	-	899.189	1,1	-	513.778	0,2	1315,7	2.445.066	0,6	6637,4
	2020	499.439	0,6	-51,6	0	0,0	-100,0	35.468	0,0	-93,1	534.908	0,1	-78,1
	2022	1.269.587	1,2	154,2	3.639.700	3,5	-	155.507	0,1	338,4	5.064.795	1,0	846,9
IX. kap. Finantza-pasiboak	2018	54.301	0,1	-98,4	41.132	0,1	-98,8	0	0	-100	95.433	0	-99
	2020	0	0,0	-100,0	0	0,0	-100,0	0	0,0	-	0	0,0	-100,0
	2022	62.107	0,1	-	54.657	0,1	-	9.111	0,0	-	125.875	0,0	-
Guztira	2018	65.038.628	100	-11,3	82.135.588	100	-5,4	275.865.661	100	2,6	423.030.646	100	-1,4
	2020	82.713.633	100,0	27,2	79.588.156	100,0	-3,1	219.022.399	100,0	-20,6	381.324.188	100,0	-9,9
	2022	106.008.912	100,0	28,2	105.447.118	100,0	32,5	276.583.041	100,0	26,3	488.039.071	100,0	28,0

D.3 Helmugan kontsolidatutako kultura-gastua

Atal honetan EAE osoan kulturen egindako gastu kontsolidatuaren emaitzak aurkeztu ditugu, betiere gastu hori egin duen entitatean mantenduz, eta hortaz, transferentziak eta dirulaguntzak jatorrian ezabatuz. Era horretan egindako kontsolidazio-prozesuak kultura-gastuaren azken erabilera erakusten du, bai eta horren banaketa ekonomikoari buruzko xehetasun-maila handiagoa ere.

Kontsolidazioa helmugan


Kontsolidazio-mota horrek transferentzien helmuga erakusten du. Jasotzen duen entitateari lotuta jarraitzen du transferentziak, eta transferentzia finantzatzen duen entitateari kentzen zaio zenbateko bikoiztua.



2022an kulturen egindako gastu publikoaren erdia baino gehiago (% 57) arteetara eta kulturen industrietara bideratu zen (279,0 milioi euro); bigarren tokian kokatu zen ondarearen arlokoa, gastuaren % 29arekin (142,1 milioi euro). Jaien eta kultura herrikoien sektoreko gastua % 7koa izan zen (35,9 milioi euro) eta zuzendaritza eta zerbitzu orokorrei dagokiena, berriz, % 6koa (31 milioi euro).

2020-2022 aldian kultura-esparru guztiek gora egin dute, zuzendaritza eta zerbitzu orokorrenak izan ezik, 2020arekin alderatuta % 29 egin baitu behera. Kopuru erlatiboetan, gorakada handiena jaien eta kultura herrikoien sektorean nabarmendu da, EAEko gastu kontsolidatuari dagokionez % 198 egin baitu gora. Arteen eta industriaren sektoreak, berriz, % 35 egin du gora, 206,8 milioi euro izatetik 279,0 milioi euro izatera, eta ondareak, berriz, % 20, 118,6 milioi euro izatetik 142, 1 milioi euro izatera.

12. grafikoa. Helmugan kontsolidatutako kultura-gastua, kultura-sektorearen arabera (€) 2010-2022




Aldakuntza	Eusko Jaurlaritza	Foru-aldundiak	Udalak	EAE, guztira
2018-2022	▲ % 36,7	▲ % 24,4	▲ % 6,1	▲ % 15,4
2020-2022	▲ % 28,2	▲ % 32,5	▲ % 26,3	▲ % 28,0

Sektorekako azterketa xeheago bat eginez gero, ikus dezakegu 2022an gastu gehiena bideratu dela kultura-ekintzaren sektorera. Guztira 102,5 milioi euro bideratu dira, gastu kontsolidatu totalaren % 21. Gastu horrek gora egin du aurreko deialdiarekin alderatuta (% 58ko igoera). Jarraian, musikaren sektorea dago. % 20ko pisu erlatiboa du eta 98,5 milioi euro, eta, kasu honetan, sektore horretara bideratutako gastuaren gorakada % 20koa izan da. Hirugarren postuan museoak daude. Gastu totalaren % 13 bideratu da horietara, hots, 63,2 milioi euro guztira, eta % 18 egin du gora kopuruak aurreko ediziotik.

2020arekin alderatuta, gastu kontsolidatuak gora egin du sektore guztietan, literatura eta argitalpenaren sektorean (% 15 egin du behera) eta zuzendaritza eta zerbitzu orokorren sektorean (% 29 egin du behera) izan ezik. Gorakada nabarmenena ondare eta arkeologiaren sektorean ikus daiteke, sektore horretara bideratu baita gastuaren % 77 baino gehiago.

Bestela esanda, biztanle bakoitzeko kultura-gastu kontsolidatua 223,2 eurokoa da. Estatistikaren edizio guztietako ratorik altuena da biztanleko.

13. grafikoa. EAEko administrazio publikoek kulturaren egindako gastua, kultura-esparruaren arabera (%) 2018-2022.



8. taula. EAEko administrazio publikoen kultura-gastuaren eta gastu kontsolidatuaren banaketa biztanleko kultura-sektorearen eta urtearen arabera. 2018-2022

Kultura sektorea	Urtea	Kultura-gastu kontsolidatua			Biztanleko gastuak
		€	%	Bilakaera %	
Ondarea	2018	125.310.751	29,6	12,7	57,5
	2020	118.558.711	31,1	-5,4	53,9
	2022	142.097.357	29,1	19,9	65,0
Ondarea eta arkeologia	2018	14.389.703	3,4	-30,6	6,6
	2020	13.129.515	3,4	-8,8	6,0
	2022	23.206.657	4,8	76,8	10,6
Liburutegiak	2018	43.965.907	10,4	22,3	20,2
	2020	41.319.219	10,8	-6,0	18,8
	2022	42.761.326	8,8	3,5	19,6
Artxiboak	2018	13.623.439	3,2	51,2	6,2
	2020	10.618.179	2,8	-22,1	4,8
	2022	12.975.763	2,7	22,2	5,9
Museoak	2018	53.331.702	12,6	17,2	24,5
	2020	53.491.798	14,0	0,3	24,3
	2022	63.153.612	12,9	18,1	28,9
Arteak eta industriak	2018	228.213.416	53,9	-8,9	104,7
	2020	206.820.145	54,2	-9,4	94,0
	2022	279.025.102	57,2	34,9	127,6
Antzerkia eta dantza	2018	26.423.038	6,2	-20,9	12,1
	2020	26.093.146	6,8	-1,2	11,9
	2022	37.185.440	7,6	42,5	17,0
Musika	2018	84.028.482	19,9	4,3	38,5
	2020	82.029.942	21,5	-2,4	37,3
	2022	98.499.600	20,2	20,1	45,0
Ikusizko arteak	2018	5.930.780	1,4	-13,0	2,7
	2020	6.493.807	1,7	9,5	3,0
	2022	7.991.729	1,6	23,1	3,7
Zinema eta ikusentzunezkoak	2018	23.359.228	5,5	38,9	10,7
	2020	22.773.657	6,0	-2,5	10,4
	2022	29.017.120	5,9	27,4	13,3
Literatura eta argitalpena	2018	2.821.774	0,7	27,4	1,3
	2020	3.577.669	0,9	26,8	1,6
	2022	3.028.037	0,6	-15,4	1,4


Kultura-ekintza	2018	84.717.780	20,0	-22,6	38,9
	2020	65.066.462	17,1	-23,2	29,6
	2022	102.499.877	21,0	57,5	46,9
Bertsolaritza	2018	932.335	0,2	-13,9	0,4
	2020	785.462	0,2	-15,8	0,4
	2022	803.299	0,2	2,3	0,4
Jaiak eta herri-kultura	2018	32.638.270	7,7	-0,8	15,0
	2020	12.080.246	3,2	-63,0	5,5
	2022	35.942.075	7,4	197,5	16,4
Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	2018	36.868.208	8,7	7,0	16,9
	2020	43.865.086	11,5	19,0	19,9
	2022	30.974.538	6,3	-29,4	14,2
Guztira	2018	423.030.646	100,0	-1,4	194,0
	2020	381.324.188	100,0	-9,9	173,4
	2022	488.039.072	100,0	28,0	223,2

D.4 Eraitza nagusiak kultura-sektorearen arabera


Kultura-ekintza

- Sektorean gastua nabarmen igo da (% 58), 65,1 milioi euro izatetik 102,5 milioi euro izatera. 2010-2022 aldiko zein 2018-2022 aldiko bilakaera positiboa da, gorakada % 24koa eta % 21ekoa baita, hurrenez hurren.
- Aurreko edizioaz gerotik, sektoreak gora egin du sektorearen pisuaren rankingean, kontsolidatutako kultura-gastu kontsolidatuari dagokionez (% 21) zein biztanleko kultura-ekintzako gastuari dagokionez (47 euro biztanleko), eta rankingeko bigarren postutik lehenengora pasatu da.
- Kultura-ekintzako gastuaren erdia baino gehiago (% 53) ondasun arruntetara eta zerbitzuetara bideratu da (54,3 milioi euro).
- Finantza aktiboei dagokiona da kopuru erlatiboetan gehien hazi den gastua (27 mila eurotik 1,4 milioi eurora), bai eta kapital-transferentziak ere (65 mila eurotik 2,8 milioi eurora). Kopuru absolutuetan ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntei dagokien kopurua igo da gehien, 37,3 milioi euro izatetik 54,3 milioi euro izatera.

14. Grafikoa. Kultura-ekintzara bideratutako EAEko kultura-gastu kontsolidatua (%) 2010-2022.



15. Grafikoa. Kultura-ekintzara bideratutako biztanle bakoitzeko gastu kontsolidatua (€) 2010-2022.




9. taula. EAEko kultura-gastu kontsolidatuaren banaketa, kapituluko ekonomikoaren arabera: Kultura-ekintza (€ eta %) 2014-2022.

Kultura sektorea	Urtea	I. kap.	II. kap.	III. kap.	IV. kap.	VI. kap.	VII. kap.	VIII. kap.	IX. kap.	Guztira
Kultura-ekintza	2014	13.174.652	37.465.854	142.837	10.619.991	16.696.782	281.037	30.098	150.451	78.561.702
	2016	23.239.187	59.304.155	7.662	14.811.308	11.233.505	889.307	20.013	0	109.505.136
	2018	19.446.081	43.061.728	1.655	14.239.719	6.900.363	193.841	874.392	0	84.717.780
	2020	11.524.006	37.291.236	500	12.105.062	4.053.652	65.000	27.006	0	65.066.462
	2022	19.586.377	54.255.488	919	15.205.664	9.235.445	2.812.466	1.403.518	0	102.499.877
	2022 (%)	19,1	52,9	0,0	14,8	9,0	2,7	1,4	0,0	100,0
	EAEko %	11,2	30,0	0,8	21,7	25,0	14,4	27,3	0,0	21,0
Bilakaera	2014-2022 (%)	103,7	50,6	-71,4	2,6	-53,3	27,7	18658,6	-100,0	24,2
	2018-2022 (%)	0,7	26,0	-44,5	6,8	33,8	1350,9	60,5	-	21,0
	2020-2022 (%)	70,0	45,5	83,8	25,6	127,8	4226,9	5097,1	-	57,5


Musika

- ▮ Kopuru absolutuetan, sektorera bideratuta kopuruak gora egin du (% 20, 82,0 milioi euro izatetik 98,5 milioi euro izatera). Dena den, aurreko edizioaz geroztik behera egin du musikaren sektoreak guztizko gastu kontsolidatua duen pisuak, % 22 izatetik % 20 izatera pasatu baita, eta, hortaz, rankingaren bigarren postuan dago, kultura-ekintzaren sektorearen atzetik. Gorakada hori dela eta, sektorean egindako gasturik handiena izan da estatistika hasi zenetik.
- ▮ Sektore horretako gastuaren zati handiena langile-gastuetara bideratzen da, musikako gastuaren guztizko kopuruaren % 66, zehazki. Azpimarratu behar dugu langile-gastu horiek EAEko kultura-gastuen % 37 hartzen dutela.
- ▮ Gainerako kapitulu ekonomiko guztietan gastuak gora egin du, transferentzia arrunten eta inbertsio errealeen kasuan salbu. Gorakada nabarmenenak hauek izan dira: langile-gastuak, 54,4 milioi euro izatetik 65 milioi euro izatera (% 16ko gorakada); eta ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak, 11,6 milioi euro izatetik 19,1 milioi euro izatera (% 64ko gorakada).

16. Grafikoa. Musikara bideratutako EAEko kultura-gastu kontsolidatua (%) 2010-2022.



17. Grafikoa. Musikara bideratutako biztanle bakoitzeko gastu kontsolidatua (€) 2010-2022.




10. taula. EAEko kultura-gastu kontsolidatuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren arabera: Musika (€ eta %) 2014-2022.

Kultura sektorea	Urtea	I. kap.	II. kap.	III. kap.	IV. kap.	VI. kap.	VII. kap.	VIII. kap.	IX. kap.	Guztira	
Musika	2014	48.654.406	17.916.270	1.972	9.664.526	1.335.730	6.972	119.229	0	77.699.104	
	2016	48.786.402	19.530.360	2.328	10.702.774	1.547.048	0	31.328	0	80.600.240	
	2018	53.177.125	16.268.092	2.665	10.605.278	3.284.186	122.000	569.136	0	84.028.482	
	2020	54.355.039	11.624.210	337	14.289.035	1.726.822	22.000	12.500	0	82.029.942	
	2022	65.020.935	19.080.384	3.898	13.186.373	971.345	225.456	11.209	0	98.499.600	
	2022 (%)	66,0	19,4	0,0	13,4	1,0	0,2	0,0	0,0	0,0	100,0
	EAEko %	37,1	10,6	3,3	18,8	2,6	1,2	0,2	0,0	0,0	20,2
Bilakaera	2014-2022 (%)	33,5	13,0	-42,9	-10,9	-89,5	-92,5	-77,2	-	-	6,3
	2018-2022 (%)	22,3	17,3	46,3	24,3	-70,4	84,8	-98,0	-	-	17,2
	2020-2022 (%)	19,6	64,1	1056,7	-7,7	-43,7	924,8	-10,3	-	-	20,1


Museoak

- ▮ Museoetara bideratutako gastuak ere gora egin du aurreko edizioaz geroztik. Sektorera 63,2 milioi euro bideratu dira, kultura-gastu osoaren % 13 eta 28,9 euro biztanleko. Gorakada hori dela eta, sektorean egindako gasturik handiena izan da estatistika hasi zenetik.
- ▮ Sektorean gastu arrunta nabarmentzen da gastu kapitalaren aurrean (gastu arruntaren % 80), eta bigarren kapituluaren barruan baliabide gehien jasotzen dituen da (museoetako gastuaren % 34, 21,2 milioi euro).
- ▮ Gora egin dute nabarmen sektore horretara egindako kapital-transferentziek, 105 mila euro izatetik 3,9 milioi euro izatera pasatu baita.
- ▮ Halaber, finantza-aktiboen VIII. kapituluak gora egin du, 500 mila euro izatetik 3,5 milioi euro izatera, eta kopuru hori EAE osoan kapitulu horretara bideratutako gastuaren % 68 da.

18. Grafikoa. Museoetara bideratutako EAEko kultura-gastu kontsolidatua (%) 2010-2022.



19. Grafikoa. Museoetara bideratutako biztanle bakoitzeko gastu kontsolidatua (€) 2010-2022.




11. taula. EAEko kultura-gastu kontsolidatuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren arabera: Museoak (€ eta %) 2014-2022.

Kultura sektorea	Urtea	I. kap.	II. kap.	III. kap.	IV. kap.	VI. kap.	VII. kap.	VIII. kap.	IX. kap.	Guztira
Museoak	2014	10.761.455	16.719.037	133.039	12.443.252	1.782.647	648.956	146.141	64.875	42.699.402
	2016	11.821.492	15.920.935	69.667	14.866.218	2.707.527	106.969	0	0	45.492.808
	2018	11.648.355	21.509.071	47.508	13.352.367	5.274.088	406.000	998.879	95.433	53.331.702
	2020	12.516.750	18.333.039	70.386	15.826.573	6.140.612	105.000	499.439	0	53.491.798
	2022	13.535.868	21.168.405	14.596	15.836.691	5.124.211	3.900.362	3.498.479	75.000	63.153.612
	2022 (%)	21,4	33,5	0,0	25,1	8,1	6,2	5,5	0,1	100,0
	EAEko %	7,7	11,7	12,2	13,8	13,8	19,9	68,1	59,6	12,9
Bilakaera	2014-2022 (%)	28,9	46,7	-85,8	46,1	-47,8	-41,3	-33,9	-	9,6
	2018-2022 (%)	16,2	-1,6	-69,3	18,6	-2,8	860,7	250,2	-21,4	18,4
	2020-2022 (%)	8,1	15,5	-79,3	0,1	-16,6	3614,6	600,5	-	18,1



Liburutegiak

